

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Edozein adin eta sexuko bezeroei eskeintzen diegu gure zerbitzuak. Batez ere, gizartearen kontsumoaren eta kutsaduraren murrizketa kontzientziazatzen direnak eta baita birziklatzeaz arduratzen direnak.

Bezero mota hauek bereizten ditugu:

-Arropak sarri aldatzea gustatzen zaien bezeroak: Bezero modernoak eta modara joateaz arduratzen direnak.

-Ume txikiak dituzten familiak; arropa asko umeei arin geratzen zaie txiki, eta gutxi erabilitakoak asko edukitzen dituzte. Sarritan oso arropa garestiak. Erropa hauek saldu nahi dituzten bezeroak ere ugari izango ditugu.

-Egun berezietarko (ezkontzak, ekitaldi bereziak...) erosten diren arropa garestiak eta oso gutxitan jazten diren arropak saldu nahi dituzten bezeroak.

-Jende arrunta. Urte batetik bestera beraien armairuetan garbiketa egiten dutenak, aspertu direlako beraien arropekin.

Hasiera batean gure esparrua euskadi mailara murriztuko da baina prest egongo ginen etorkizunean gure herrialdetik kanpo zabaltzeko.

